derechoamorir.org

Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkartea

Egina duzu zure Aurretiazko Borondateen Dokumentua? (ABD)



ABDari buruzko informazioa

(Bizi-testamentua)

dmddhe

DERECHO A MORIR DIGNAMENTE

DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA

EUSKADI

Elkarrizketa benetan garrantzitsua

Heriotzaren gaia tabua da. Batzuetan deserosoa izan daiteke heriotzari buruz hitz egitea, baina pertsona guztiok pasako gara esperientzia horretatik. Heriotza biziaren baitan dago.

Inork ez daki noiz eta nola hilko den, baina eskubidea dugu, zuk ere bai, nola hil nahi dugun erabakitzeko, eta nola ez. Zure hurbilekoekin hitz egin gai honetaz eta animatu itzazu ABDa egitera!.

Zer da ABD delakoa?

Agiri horretan adierazten duzu zein zaintza eta tratamendu jaso nahi dituzun, eta zeintzuk ez, baldin eta, zure osasunaren narriadura konponezina tarteko, adierazpen-ahalmena galduko bazenu.

Aurretiazko Borondateen Dokumentua (ABD) testu hauetan arautzen da: Pazientearen autonomiari buruzko 41/2002 Legea, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa arautzen duen 9/2024 Dekretua, eta Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen Eskubideak eta Duintasuna ziurtatzeari buruzko 11/2016 Legea.

Eutanasia Arautzeko 3/2021 Lege Organikoak legez jasotako egoeretan hiltzeko laguntza eskatzeko balio duen dokumentu gisa aitortzen du ABDa.

Zergatik da garrantzitsua?

- ✓ Zeuk erabakitzen duzu, zeure balioetan oinarrituta; bizitzaren amaieran sufrimendua luzatzea saihets dezakezu.
- ✓ Zure borondatea bete dadila bermatuko duzu, baldin eta ezin baduzu adierazi.
- ✓ Ordezkari gisa zeure konfiantzako pertsonak izenda ditzakezu, zeure balio eta lehenespenen ezagutzaileak, behar izanez gero zeure ABDa betetzea defenda dezaten.
- ✓ Zama kentzen diezu zure hurbilekoei, erabaki zailak hartzeko atakan.
- ✓ Erraztu egiten diezu lana osasun-langileei, argi izango baitute pazientearen borondatea.

DMD-DHEren proposamena

DMD-DHEk badu ABD egiteko eredua, bere horretan erabili dezakezuna edo zure egoerara edota balioetara moldatuta. Osakidetzaren eredua, edo besteren bat erabiltzea erabakitzen baduzu adierazpen hau ere txerta dezakezu.

Erabakitzeko egitatezko gaitasuna dudala, askatasunez jardunez eta gogoeta egoki baten ondoren, nire balioak eta lehenespenak kontuan har daitezela eskatzen dut baldin eta nire egoera fisiko eta mentalaren ondorioz nire osasunaren zaintza eta bizitzaren amaierari buruzko erabakiak hartzeko modu iraunkorrean gaitasuna galduko banu:

- ✓ Hortaz, adierazten dut nire bizi-kalitatearen eta duintasun pertsonalaren irizpideetan funtsezkoa dela independentzia funtzionala izatea eguneroko bizitzako jardueretarako, min fisiko edo psikikorik ez izatea, nire senideak eta hurbileko pertsonak ezagutzea, eta nire bizitza ez luzatzea irizpide horietako edozein betetzen ez den edozein egoeratan.
- ✓ Sufrimendu psikiko etengabe eta onartezintzat jotzen dut, eta hortaz neure duintasun pertsonalarekin bateraezina, egoera bat zeinetan pairamen larri, kroniko eta ezintasun-sortzaileek hala narriatzen duten nire nortasuna eta buru-ahalmena ez naizela gauza gaixotasunaz beraz edo bizitza-duintasunezko irizpideez kontzientzia izateko, eta nire osasun-zainketei buruzko borondatea adierazteko.
- ✓ Beraz, mugarik gabe konorterik gabe banengo, edo aurreko puntuan deskribatutako narriadura kognitibo atzeraezinean, uste dut horrela bizitzen jarraitzeak ez duela niretzat inolako zentzurik, eta niretzat onurarik handiena nire bizitza amaitzea dela; beraz, nahiz eta ez adierazi, ez gogoratu edo, beste pertsona batzuen iritziz, kanpoko sufrimendu-zantzurik ez adierazi, **dokumentu hau eutanasiaren bidez hiltzeko berariazko eskaera izatea nahi dut**.
- ✓ Jabetzen naiz gaixotasun batzuek, dementzia askok bereziki, gaixotasunaren kontzientzia galtzera eramaten dutela. Dokumentu honetan adierazitako nire borondatea gauzatzeko unea iritsita, nahi horrekin bat ez datorren iritziren bat adierazten badut, idatzi honetako jarraibideak errespetatzeko eskatzen diet nire legezko arduradunei. Idazki hau gaitasun kognitibo osoz dago idatzita, eta hemen adierazitako borondateari nagusitasuna ematea eskatzen dut.
- ✓ Zalantzarik balego erabakitzeko egitatezko ezintasun-egoera atzeraezina ote den, argi utzi nahi dut aukera horrek ez duela aldarazten eguneroko jardueretarako beste pertsona batzuen mende egongo den bizitza ez jasateko nire erabaki irmoa.
- ✓ **Aurretik aipatutako egoeretan, eutanasia-eskaeraren kudeaketak hartzen duen epean, edo eskaera ukatuz gero**, tratamenduak egokitu daitezen eskatzen dut, eta zehazki, uko egiten diot bizitza iraunarazten lagunduko luketen bizi-euskarri, terapia, kirurgia nahiz prozedura orori hala nola fluido bidez, zundaz edo gastrostomiazko nutrizio-hidratazioari, taupada-markagailu, desfibriladore, bihotz-biriketako bizkortzeari, antibiotikoei eta beste edozein medikaziori salbu eta nire ongizatea hobetzeko eta sufrimendua arintzeko behar dena, hil arteko sedazio aringarri sakona ere barne.
- ✓ Osasun-arloko profesionalen bat jarraibide hauetakoren baten kontzientzia-objektore deklaratuko balitz, haren ordez beste profesional bat izendatzea nahi dut, nire bizitzaz eta heriotzaz askatasunez erabaki dudana berma dadin.

Nola gauzatzen da?

Gogoratu ABDaren testua libre dela.
DMD-DHEk eredu bat proposatzen dizu, eta zeure uste osoen arabera pertsonalizatu dezakezu.
Eskuratzeko: https://derechoamorir.org/testamento-vital/#euskadi

ABDa formalizatzeko hiru modu dituzu aukeran

OSAKIDETZAREN BIDEZ

Hitzordua eskatu zeure Osasun Zentroan edo Osasun Saileko Ordezkaritzan:

Vitoria-Gasteiz: Olagibel kalea, tel. 38, 945 017 148 | 945 017 150
Bilbo: Recalde Zumarkalea 39, tel. 944 031 500
Donostia: Antso Jakituna Hiribidea, tel. 35, 943 023 006

Gogoratu eskubidea duzula DMD.DHEk proposatzen dituen puntuak zure ABDan ezartzeko. Osakidetza arduratuko da Erregistroan sartzeaz.

HIRU LEKUKOREN AURREAN

Adin nagusikoak. Ezin dira izan sinatzailearen 1. edo 2. mailako familiartekoak ezta ere ezkontideak, edo egitatezko bikoteak edo elkarte librean bizi direnak, ezingo dute orobat zurekiko ondare-harremanik izan.

Modalitate honetan **zure ardura izango da** ABDa eta beharrezko dokumentazioa erregistratzea, hona helaraziaz:

Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa
Osasun Saila // Eusko Jaurlaritza
Donostia–San Sebastián kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz

Posta ziurtatuaz bidal daiteke, edo beste administrazioetako (Osasun Saileko Lurralde Ordezkaritzak, Anbulatorioak, Udaletxeak eta abar) zerbitzuen bidez. Orobat, online Osasun Saileko Webean.

NOTARIOTZA BATEAN (Aukera hau ez da doakoa)

Gogora ezazu zure eskubidea dela DMD-DHEk proposatzen dituen puntuak sartzea. Notariotza arduratuko tramitazio eta erregistratze gai guztiez.

Erregistratu ondoren, edozein tokitan zutaz arduratzen diren osasun-langileek kontsultatu ahal izango dute.

INFORMAZIO GEHIAGO

- Harremana DMD-DHErekin.
- DMDren Weba: https://derechoamorir.org
- Osasun Saileko Weba: https://labur.eus/AurreBoron

DMD-DHE Euskadi
Araba kalea 6 (erdisotoa)
48014 Bilbo
635 738 131
dmdeuskadi@derechoamorir.org

DMD Egoitza
Puerta del Sol plaza, 6, 3.a ezk.
28013 Madril
91 369 17 46
informacion@derechoamorir.org

dmddhe
DERECHO A MORIR DIGNAMENTE
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA
EUSKADI